

Esteban Gorroño Arregi

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1920-2004)*

Aurkibidea

Biografia



Aretxabaletan jaioa, Otalora kaleko 8an. Bere ama, Rita Arregi, Arrasateko Musakola auzoko Altzibar baserritik Aretxabaletara etorritakoa zen eta aita, Lorenzo Gorroño, Bizkaiko Berriotik. Aretxabaletako herriko eskolan ibili zen (orduko eskola nazionalean). Gerra zela eta, 18 urte bete aurretik soldadutzara eraman zuten, eta zazpi urtean soldadu egon zen. Geroztik saltsa askotako perrexila izan zen.

Zintak

ARE-021

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gorroño, Jasone
- **Data:** 1998-01-01
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Lehen autobusak herriz herri

- **Erref:** ARE-021/001
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Aspaldi neska bati autobusean gertatutakoa: Zarautzera joan nahi eta autobusak kanpoaldean utzi zuen, tunel baten ondoan. Lehenago autobusak herriz herri joaten ziren herri guztietatik pasatuz, baina gaur egun lehenbizi Donostiara joan behar zara.

Transkripzioa

-D: Eta Zarautzen jatxi bihe zan ha, eta klaro, autobusa geratu zan autopistan Zarauz pare-parien. Eta "A ver los de Zarauz". Neskioi zutittu zan eta han ez euen estaziñoik eta ezebez. Halako tunel bat, eta zubitxo bat eta haretxen onduen zan. Eta esan utsen: "Y dónde está pues, dónde tengo que..." [...]. Ha Gasteiztik etorren. "Pues mire, pase por debajo de ese puente..." Ez dakit zela esan otsan be, "... y eso es Zarauz". Nun ikusten auen? Baiña maletak, tremendako maletiaz auen, ha etorren hillabeten bat pasetan edo gure dana. Eta han geratu zan neskioi. Eta autobuseko danak, ez dau deretxorik. Horrek neskiorrek ze [ein bihe dau] bakar-bakarrik... Eta herrixa, oin ia etxiak autopistaraiño eindda dauz, baiña oin urtetxo batzuk badie.

-E: Autobusen orduak gutxi gorabehera ipinitta dare eta holakuetan taxi bat edo beste bat holako okasiñueterako...

D: Ba ez dau ezebe. Ez dau ezebe. Lehenao faten zan Eskoritzatik zazpi t´erdietan urtenda faten zan Donostiara, ha herri barrutik faten zan, baiña gaur ezin zeinke fan. Zarautzera fan bihar dozu, edo Oriora edo Usurbilera edo Zumaiara, lelengo Donostiaraiño fan biha zara eta gero etorri ein biha zara atzera honuntza. Hori probintzia barruan eitteko ez da bape...

-E: [...] harutza fan eta honuntza gero etorteko barriro pagau ein bihar [...]

-D: Eta gero atzera bueltarako igual, gauza bat da pagetia, baiña beste bat [...] dozun denporia. Egun baten fanda etorri ezin zeinke ein autobusetan Donostiatik, edo Zarauztik edo. Ez dau beste bideik. Hori oso txarto dau.

2. Gaur egungo autobusen inguruko iritzia

- **Erref:** ARE-021/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Gaur egungo autobusen inguruko kontuak eta iritziak.

Transkripzioa

-D: Eta beste gauza bat dauena autobusetan, xeiretan urteten dau doiena Gasteizera Donostian, ezta? Atsaldeko xeiretan. Eta hori Atxabaletatik pasetan da; baiña oin zortzi t´erdietan edo, ez dakit zortziretan edo noiz dan, eta Arrasaten bakarrik geraketan da. Zu Arrasaten geraketan zara. Behin pasau jakun, eurixa Arrasaten [...] gintzenerako, taxirik ez auen, Eibartik datorrena ez dakit pasauta auen edo ze pasau zan. Hori badie..., bastante denpora.

-E: Konbinaziño barik.

-D: Ez dau konbinaziñoik. Ordubetien edo egon bihar gintzen bertan. Eibarren zortzi t´erdietan edo ez dakit noiz urteten zan. Euri zaparrara izugarrixa, "aunque sea" goazen taxis bat hartzen. Fan gintzen San Franziskoko eleixara, han egoten die taxisok, lehen behintzat, oin ez dakit egoten dien. Taxi bat be ez auen, danak fanda euzen norabaittera. [Han egonda] ez dakit zenbat denporan, halakon baten etorri zan, etorri gintzen Atxabaletara. Probintzia barruan egoteko, e, Madrillera fatia izen bazan, baiña ein bihar dozu trasbordo eta gauzatan... Eta gero eguakotxetan be zortzirak eta laurdenetan, ha Eskoriatzaraiño doie, baiña aste guztien ez. Eta guk esan askotan Donostian komentarixotan billetek emuten daben lekuan, aber zegaittik egon ezker... jenteik ez badao Atxabaletarako, bueno, geratu deilla Arrasaten, baiña egon ezker baten batzuk Atxabaletaraiño datozenak, aber zelan ez daben jarraiketan [...] Hori udaletxeko gorabeheria dala eta udaletxien kejetako. Hiru bider esan oskuen. Geuri eta beste batzui be bai. "Eso en el ayuntamiento tenéis que hacer algo, es cosa del ayuntamiento". Aspalditxoko kontue da, e. Gu ez goiez aiuntamenture, astero fan biher bada, bien, baiña noizipehiñien fateko ez goiez [...]. Eske ez dau deretxorik hortarako. [...] Atsaldeko xeirak Donostian segiduan etorten jatzu, hala be udan, eta gura bozu herriraiño etorri, hantxe etorri bihar zara.

3. Lehen autobusak herriz herri

- **Erref:** ARE-021/003
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Trenak gauza bat du autobusaren aldean: puntualtasuna. Lehenago autobusek

denbora asko egiten zuten batetik bestera, baina herriz herri joaten zirenez, errazagoa zen edozein herritara joatea.

Transkripzioa

-E: Trenak gauza bat eukitten juen bastante ona: ordue eukitten juen ifinita, lehenau nekez etorten zuan, beti, e [...] Sartu Donostian eta Atxabaletara aillegetan hiru ordu eta piku. Hori ondo etorrela. Trenien.
-D: Autobusetan be bai, hori Eskoritzakuo i hiru ordu bat lehenagokuetan behintzat kontau bihe zan, baiña etxeraiño sartzen zan. Baiña hori kendu euen, ez zala.... zela esaten da? Hori, ez zala rentabilia, kendu euen eta kitto. Baiña orduen jentia herri guztietakue faten zan, luzie izango zan, hiru ordu pasauko zien, baiña seguru [zauen], herrira fan zeinkien orduan, oin ezin zeinkie fan.

4. Trenaren inguruko kontuak; istripuak

- **Erref:** ARE-021/006
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Trenak inguruetan ez zuen istripu askorik izan. Ezagun bat hil zen trenean. Horren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

-Akzidente asko egoten zan lehen trenan asuntuen?
-D: Ez, ezta? Esteban? Akzidentiek?
-E: Trenakin eta? Hola akzidente asko ez. Noizbaitten hola hor Araba aldien, Marin aldien ganauren batek urten utsela edo holako zeren bat, baiña gutxittan, e. Akzidentiek ba, Atxabaletako bat hantxe hil zan Mondrauen, [...] lehen esaten ibilli garen anai bat hil zuan, Benito Akizu. Mondrauen. Ba bere lobiaz bultzakara bat edo gura barik trenera sartzen doiela, edo ez jakixat zer be, edo trena aillegetan dauela [...]
D: Hasi pasetan kotxe batetik bestera edo?
-E: Ez dakit ba nik. Trena aillegetan dauela bestia aguro fateko lekua hartzeko-edo geldittuta parien edo eta. Eta itxurie tio hori bultzakaran bat eindda... Holako zeren bat pasau [zan] ez dakit zela izen zan seguru, ez dakit.

5. Trenaren inguruko kontuak; paso nibela

- **Erref:** ARE-021/009
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:19:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Paso nibelean ezagun bati gertatutakoa. Paso nibelaren inguruko kontuak. Trenaren inguruko kontuak eta istripuak.

Transkripzioa

-D: Igoten geuen kaseta gaiñera, eta alde batetik eukitten euen berdía eta bestekaldetik gorrixa. Berdía zanién ba pasua libre euen, baiña gorrixa izen ezkeró zerbait [...]. Pasetako, pasetako, berak ipiñi dauela gorrixa. Ene!, oiñ ein biher holakuak.

-E: Horrekin paso nibel horrekin zer asko pasau zan.

-D: Oso txarto egon zan. Mari Karmen oso txarto egon zan. [...] Paso nibelian berai pasau jakonian. Oso gaizki egon zan. Ni akordetan naz [...]

-E: Hor Durango onduan dago Matiena, han hillien behiñ edo egoten zuan akzidenten bat, trenak harrapauta baten bat. Azkenien eztakitt oiñatiarrak- edo zela zien harek, oiñatiarrak. Kotxe baten bost lagun-edo garbittu zien. Han, jota garbi danak. Bete-betien harrapau eta bost lagun [...] Baiña aurretik akzidenten bat, esateko, hillero. Eta xei lagun edo zazpi, eztakit zenbat, orduan danak garbittu zien. [...]

6. Gerra aurreko aroztegia

- **Erref:** ARE-021/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Uztargina non zegoen. Gerra aurretik aroztegia omen zegoen leku horretan. Arotzaren familiaren inguruko azalpenak. Ganadu-tratanteak.

7. 'Círculo Carlista'ko mitinak; Maria Urraca Pastor Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-021/013
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:27:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

<p>Círculo Carlistako mitinak; Maria Urraca Pastorek mitina eman zueneko kontuak. Margaritak eta pelaioak.</p>

Transkripzioa

-E: Eta gero euki auen hor zirkulue be bai. Goixan be euki auen zirkulue.

-D: Baitta. Ni entzunde nau mitiña karlistena handik.

-Zirkulua, nun egon zan hori?

-D: Hor Etxaben karnezerixia badau ba? Hantxe lelengoko pisuan egon zan.

-E: Bertan etxian. "Círculo Carlista".

-D: Tradizionalista ez zan?

-E: Karlista edo tradizionalista... Ni akordetan naz, egun baten mitiña, eta Mondraueko Pagoaga.

-D: Maria Rosa Urraca Pastor zan "Margaritia".

-E: Urraca Pastor be bai egon zan.

-D: Haretxen mitiña entzunda daukat.

-E: Bai, ha ta... Harekin batera zan Antonio Pagoaga.

-D: Jentia kalien jarritta, sillak eruenda etxetik eta, ezta? Horreik denporak, ene!

-E: Harek mitiñak botaten zittuen eta, zerak, Pagoagak, zera eitten. Eta palike ona dauka Pagoagak, e.

-D: Ez dakit gerria hasitta egongo zan.

-E: Ez, ez.

-D: "Nosotros luchando por Dios".

-E: Ha republika denporia zan. [...]

-D: Ha zan España maillan Margaritan... Zien karlistak, mutikuak zien, mutikotiek edo, "Pelayos". Ez dakit Pelayo nor izen zan, erregen bat edo, "Pelayos". Neskak zien, emakumiek zien "Margaritas". Margaritak orduen tiestuen be ez zien egoten gurien floreruen be. Margaritak? Karliten loria, ezta pentsau be. "[...] margaritia ederra, politta da". "Baiña margaritak dia". Urraca Pastor. Horretxegaz bakar-bakarrik akordetan naz: "¡Nosotros luchando por Dios, los otros allá ellos!" [...] Eta kasualidadia ni entzuten, ni entzuten.

E: Hori esan biher notsun ba. Harek akabau auenien, ein auen mitiña haren aureko, honek, Antonio Pagoagak, zereko Mondrauekuak. Eta badabil esaten-esaten, eta ez dakit zer esan auen, eta [...-k] esan utsen: "tira, txotxoluo, Pagoaga, ixildu hari, ixildu, txotxoluo halakuoi!" Bestie jota pasauta. Berriro hasi eta: "Ez dostat ba esan txotxolu horri ixilketako!". [...] Balkoittik.

D: Hori zan bazkaloste baten, eta [...] lanera oien, eta Maria Rosa Urraca Pastorrek akabau auenien bere zeroi [...], holaxen txaluek eitten Maria Rosa Urraca Pastori, zihero aztorauta. Enee!, hareik mitiñak eta.

E: Niri grazia haundixena, [ointxe ba...] akordetan nok, "Pagoaga, txotxoluo halakuoi, ixildu hari!"

8. Herriko uztargina

- **Erref:** ARE-021/014
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:27:55. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Herriko uztargina nor zen. "Koipe" deitzen zitzaionak soinu eta uztarginak panderoa jotzen omen zuen. Uztargina ze familiatakoa zen. Emaztea gernikarra zuen.

Transkripzioa

-Beste gauzatxo bat. Uztargiña zein zan?

-E: Uztargiña? Santos bajauan ba erretratista bat? Ba haretxen aitta. [...] Ha panderojoteillie zuan ona. Ha Koipekin, Koipekin zera ibiltten zan, [...] Koipegaz Bitorixara... Harek filarmonikiaz, bestiak panderuakin, asko ibiltten zan.

-D: Lehen esaten hasi nazena, Kolonena, hortxe behien eukien horrek, uztarrixak hantxe eitten auen. Horrek kanpotik etorri zien, horrek ez dakit nundik etorri zien.

-E: [Mendienak] hor bertan euki auen arotzerixia.

-D: Horrek ez dakit nundik etorri zien, horrek Uztargiñenok.

-E: Uztargiñenok? Larriñokue da bera.

-D: A bai?

-E: Andrie Gernikakue edo.

-D: A bai. Familixia Gernikako, horko behealdeko zera...

-E: Andria. Baiña zela auken izena ez jat akordetan oin. Min punten daukat eta.

-D: Gure dana, bai. Uztargiña. Uztargiña eta uztargiñan andria. Akabo.

-E: Ladrillosen aman eta anaia, Larriñokuek.

D: Bai, harekin etxekuek zien, familixa artekuak.

9. Gerra aurreko euskarazko eskolak

- **Erref:** ARE-021/015
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:30:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Lehenbiziko ikastola (euskaraz irakasten zuten eskola) non ezagutu zuten. Gerra aurretik euskaraz ikasten zuten, baina gerra-denboran hori bukatu egin zen.

Transkripzioa

-D: Han behien akordetan zara zu noix egon zan eskuela bat [kantetan] jakon orduen. Orduen, "en aquellos tiempos".

-Zer zan hori?

-D: Ba euskera, multiplicar, restar eta.

-E: Ikastola bat, bai.

-D: Danok euskaldunak gintzen, baiña eskolan erderaz [...]

-E: Nik lelengoko ikastolia ikusi neuena Atxabaletan, hor [Beroak] eukien hametikaldera Etxezarretan eta, lehenau, garai baten pospolo-fabrikie izan zan, eta Beroak eukien. Eta hantxe pospolo-fabrikan hasi giñen gu ikastolan faten mutikuek eta neskatillak eta faten gintzen haraxe gabetan.

-Zenbat urtekin zan hori?

-D: Kolonena aurretik izengo zan o geruau?

-E: Geruau.

-D: Kolonena geruau?

-E: Bai. Haxe izen zan lelengokue.

-D: Ni honekin ez naz akordetan.

-Noizkua da?

-E: Hori? Guk zenbat urte eukiko gaixuen ba...

-D: Gerra aurretik, edozein modutan be. Gerra ondoren horrek gauzok, e... Gerra aurretik.

-E: Bai, gerra aurretik zan ha.

-D: Hoi izango zan hogeta hamalautik hogeta hamaxeira bittartian.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com